
IRATXE IBARRA, BIZKAIKO FINALISTA

*Izena: Iratxe Ibarra Foruria. Nongoa: Markinarra. Jaioteguna: 1974eko abenduak 10
Lanbidea: Euskal Filologiako ikaslea. Etxetik datorkio bertsozaletasuna eta eskolan aritu zen bertsotan ikasten Luis Barraiazarrarekin. Bizkaiko azken txapelketan finalera iritxi zen.*

Testua: Izaskun ELLAKURIAGA

Gogoratzen duzu noiz entzun zenuelaren aldiz bertsorik?

Ez dakit, oso zaila da galdera horri erantzutea. Beharbada. Markinan Kontzesiño egunez egiten den saio batetan entzungo nuen lehen aldiz bertsoren bat, edo bestela, posible da irratitik ere izatea, etxean beti izan baitira oso bertsozaleak.

***Nondik datorkizu bertsotarako zaletasuna?**

Nire etxean beti izan dira oso bertsozaleak, hemen inguruko saio gehienetara eta txapelketa askotara joaten ziren. Baina ni txikia nintzen eta ez nintzen ohartzen. Nik uste dut zaletasuna eskolan piztu zitzaidala. Aita Luisekin (Luis Baraizarra) eskola denboran bertsolaritza lantzen genuen. O.H.Oko 3 mailatik 5.mailara bitartean asteen behin



bertsoak lantzen genituen eta batez ere, bertso zaharrak ikasten genituen. Eta norbaiten urtebetetzeak zirenean, aita Luisek bertsoa egiten zuen eta besteok buruz ikasi eta kantatu egiten genion elkarri. Gero, 5.mailan idatziz hasi ginen. Gero, aurrerago Jon Lopategi etorri zen eta berarekin bapatean saiatzen ere hasi ginen.

***Gogoratzen duzu noiz kantatu zenuen plazan lehen aldiz?**

Markinan izan zen, aita Luisek lagunduta. Bertsoak buruz ikasi eta plazan kantatzen hasi ginen. Eta gero bapatean, eskolarteko txapelketan hasi nintzen.

***Zu bertsotan hasi zinen garaian, neska gehiago ere hasi ziren bertsotan?**

Bai eta asko ginen gainera. Gu 6.mailan bertsolaritzan apuntatuta 18 lagun ginen eta gainera, gehiago ziren neskak mutilak baino.



Hurrengo urteetan, ordea, 5 neska baino ez ginen geratu eta aurrerago Elisabete eta biok bakarrik geratu ginen.

***Eta zergaitik uste duzu hori gertatu zela?**

Idatziz guztiok saiatzen ginen, baina bapateko txapelketetara aurkeztu behar izaten zenean neskek ez zuten nahi izaten. Elisabete eta biok joan behar izaten genuen, mutil guztiekin.

***Inoiz izan al duzu arazo berezirik neska izateagaitik?**

Ez, ez naiz ohartu. Beti normaltzat jo dut hori, txikitatik ibili naiz horrela, hasieran neskekin gero mutilekin ... Gero beste herri batzuetan ere baziren nire antzera ibilitakoak, Ainhoa Munitxa, Larraitz Zarrabeitia, Izaskun Ellakuriaga, Xiomara Gezuraga, Mirari Azula, Izaskun Tellitu eta beste hainbat eta orduan gauza normaltzat ikusten nuen.

***Inoiz neska izateagaitik zerbait esan gabe geratual zara?**

Ez, zerbait esan gabe geratu banaiz, beste-lare ere esan gabe geratuko nintzatekeelako izan da, ez dut horretan ere arazorik izan emakumea naizen aldetik.

***Uste duzu emakume bet gehiago eskatzen zaiola?**

Ez eta bai. Batzutan "neska bat bertsotan" esan eta uste dute bertsoa amaitzearekin nahikoa duzula eta ez zaituzte beste batzuk bezain beste kritikatzten. Hala ere, beste batzutan, uste dute bertsotan ez dakigula eta orduan zu gizonak beste bazarela demostratu behar diezu eta kasu horretan, lan bikoitza egiten ari zara. Baina apurka-apurka guzti hori gaingidituz doala uste dut.

***Beste bertsolariek tratu berezia eskeintzen dizute emakume izateagaitik?**

Ez dut uste emakume izateagaitik tratu berezia eskeini didatenik, beharbada gaztea izateagaitik bai, baina neska izateagaitik ... ez dut uste.

***Gaietan uste duzu emakumea izan edo ez kontutan hartzen dela?**

Batzuetan bai. Esaterako, niri gertatu zait saio baten hasieran arrebaren papera, gero amarena eta gero andrarena egitea, denak

emakumeen paperetan. Baina alderantzizkoa ere gertatu zait. Behin gaijartzaileak gaia eman zuen nor den nor zehaztu barik. Madonna eta kazetaria zeuden eta nik uste nuen niri jarriko zidala Madonnaren papera eta azkenean kazetari lez jarri ninduen.

***Duela bi urteko Bizkaiko txapelketan mutilen gairik ere tokatu zitzaizun, ezta?**

Bai, Markinan kartzelako gai batekin izan zen. Gaiak fotografia zaharren artean begira nenbilela soldaduzkako bat ikusi nuela esaten zuen. Eta hor, puf!! zuri baino zuriago geratu nintzen. Gainera gogoratzen naiz txapelketa aurreko batzar batean gaiak jartzera-ko orduan gazte jendea asko dagoela eta emakumeak ere tartean zirela kontutan hartuko zutela esan zutela. Eta saioan gaia entzun nuenean, zer esan ez nekiela geratu nintzen.

***Saio gehiago edo gutxiago egiten da neska izateagaitik?**

Beharbada gehiago. Askok neskak kuriositate moduan edo neska bat sartu beharragaitik deitzen gaituzte eta posible da alde horretatik neska izateak plaza gehiago ere eskeintzea. Eta gero, martxoan emakumearen eguna dela eta larregi izaten da, mundu guztiak neskekin bakarrik egindako saioak antolatzen dituelako eta nire ustez bide horretatik ez da jo behar.

***Beti bertsolaritza matxistatzat jo izan da, eta orain?**

Nik uste du gauzak aldatzen doazela. Lehen oso arraro izaten zen neskak eskenatoki gainean bertsotan ikustea, baina orain hori normalagotzat jotzen da.

***Etorkizunera begira, uste duzu oraingo martxan jarraituko duzula?**

Ez dakit, oso zaila hori orain esatea.

***Hala ere, ezkontuta, umeekin eta bertsotan imajinatzen duzu zure burua?**

Ez dakit, oso zaila da. Adibidez, momentuan ez dut Jose Lizasoren adineko andrazkorik bertsotan hoiek dabilzan trotean ikusten. Orain gabilztzanak denak gazteak gara. Beharbada, adin horretaraino denok jarraitu ezkeror, orduan ere normala izango da.